


Iñaki Alberdi: «Urtetik urtera jendeak gero eta esku-makila gehiago erosten ditu»

A. ITURRIOTZ / IRUN

Euskal Herrian artisaugutxi batzuk baizik ez dira gelditzen, barrikagile, uztargile, buztin eta beira artisaugutxi bakar batzuk. Hegoaldean makilak egiteko ohitura galdua zen honezkeroko, Iñaki Alberdi irundarrak lan honi tinko eutsi izan ez balio. Gai-nontzeko artisaugutxi ez bezala, Alberdi baikor agertzen da etorkizunari begira, bere lanak jarraitzailek izango duenaren itxaropenaz. «Urtetik urtera lan gehiago egiten ari naiz, geroz eta erosle gehiago dauzkadako». Alberdik gaztetan ikasi zuen egurra lantzea zer zen, aita eta anaia zaharrena tallista zituelako. Jende asko hurbiltzen omen zen alberditarren tailer-rrera makila zaharrak egiten zituzten galdezka eta horrela bururatu zitzaion lan honetan has-tea. Baina Hegoaldean maisurik ezean, Iparraldera jo zuen. «Erraz ikasi nituen makilak egiteko trukotxoak, makila eta burdina ez zirelako niretzat lan tresna berriak».

Hegoaldean bi artisaugutxi azoka garrantzitsu izaten dira, Getxon bata eta Errenterian bestea, eta bietan izaten da Alberdi bere lana zertan den erakusten. «Nire makilak ikusten dituen jende askok egurra tallatu egiten dudala uste du, baina nirez eta da tallatzea, markatu edo 'probokatzera' baizik. Makiletako marka ondulatuak ez ditu artisaugutxi berak egiten —argitzen du Alberdik—, mizpiraren sekretuak dira. Udaberrian basoetara iristen naiz mizpiren bila. Mizpirak



oso enbortxo leuna izaten du eta bertan labanaz nik nahi dudana dibujoa egiten dut. Hurrengo neguan berriro itzultzen naizenerako, labanaz egindako hu-

tsunea beteta egoten da, enborra hazi egiten bait da. Gero, behin ondo lehortuta dagoenean, azala kentzea izaten da kontua». Makila bat egiteko zenbat

ordu behar den zehaztea ezinezkoa dela dio Alderdik. «Lehenik mizpira aurkitu behar duzu eta gerta daiteke egun batean mendira joan eta mizpira adats bat bera ere ez aurkitzea. Egun bat baino gehiago jarraian ere egin ditut nik basoan, eta mizpiraren usainik ez!». Gaur egun Goierriko Idiazabal aldean aurkitzen du irundarrak bere lan-gaia, «baina geroz eta zailagoa zait. Mizpira urritzen ari da, basoak garbitu eta pinuak landatzen dituztelako. Horregatik, mizpira adats txikiak lurretik zain eta guzti atera eta Irunen birlandatzen hasi naiz».

Gisa guztietako erosleak ditu Alberdik. «Batetik, partikularrak, mendira makila eskuan doazena; kolezionistak, bigarrenik, makilak arte obra baithiran gordetzen dituztenak; eta azkenik, zer bait tradizionala oparitu nahi dutenak, erakundeak nagusiki. Erabiltzeko baino gehiago, oparitarako erosten dizkitate makilak». Alberdik bi makila mota egin ohi ditu, 'normalak eta ohorezkoak'. Azken hauetan makilaren azpiko kaskilloa zilar edo alpakazkoa izaten da, latoizkoa izan ordez. Goikaldean kirtena eramatzen du makilak, larraz trantzetatua. «Sarri askotan, eta erosleak horrela aginduz gero, esaldi bat idazten dut kirtena eta makila lotzen dituen latoizko piezan, edo jabearen izena eta data. 'Hitza hitz' eta 'Nire bidetako laguna' dira erabilienak. Basarri bere omenaldian oparitutako makila ere nik egin da eta bertan bere bertso bat idatzi nuen».

SOSLAIA

Ondo landu eta trebetutako eskuak

Goz egin du lan Iñaki Alberdik esku-makilen artisaugutxi, duela hamabi urte hasi zenetik gaur arte, eta erretiratu arte horretan jarraitzeko asmoa du. 42 urteko irundar honentzat, makilak egitea lanbidea ez ezik, hobbia ere bada. «Ez da bertute berezirik izan behar lan honetan aritzeko, baina pazientzia handia behar da, eta esku bereziak, ondo landutakoak, nola ez!». Eskuetan duen trebezia ikusita, sinesgaitza izan liteke askorentzat, Alberdi gaztetan rugby jokalaria izan zela jakitea. «Handiak bai, baina ez dute baldarrak izan behar». Gaztekoen rugby entrenatzailea da.